

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/10/1 | 330

🌀	Berazubiko Jaiak
🌀	Aldaba zahar baserria
🌀	Gipuzkoa ezagutu argazkiak partekatuz
🌀	III. Galtzakomik lehiaketa
🌀	Patxi Caminos



Txintxarri abesbatza
50 urtetan
musu-truk **kantuan**

🌀 María Victoria Lucerorekin solasean



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea
 Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egija, Ibon Artola, Unai Igarua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Bilgune Feminista, Amaia Etxexipia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala
 Diseinua: Zigor Agirrezabala


Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



**Erreportaia:
Txintxarri abesbatza**

Juantxo Aranburu, Joxe Mari Balerdi, Mila Begiristain, Xefe Balerdi eta Migel Mari Arabalaza dira Txintxarri abesbatzan hasiera-hasieratik diharduten bost kideak. Jende asko, belaunaldi asko ikusi dute abesbatzatik pasatzen, taldera sartzen eta ateratzen, baina beraiek bidean aurrera jarraitu dute. Koruak berrogeita hamar urte bete dituen honetan, beraiekin bildu nahi izan dugu garai zaharrei eta berriei buruz hitz egiteko.

8-11. orrialdeak

Iragan irailaren 21ean Alzheimerren Nazioarteko Eguna ait-zaki hartuta María Victoria Lucerorekin, Tolosaldean lanean diharduen AFAGIko psikologoarekin, bildu da Galtzaundi gaixotasunaz eta elkarteak burutzen duen lanaz mintzatzeko.

Elkarrizketa: María Victoria Lucero 16-18. orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Gorka Errasti	4-5
🌀	Normalizazioa: Mintzalagunarekin lehen hitzetik euskaraz	6-7
🌀	Eskualdeko albisteak: Berazubiko Jaiak	12-13
🌀	Eskualdeko albisteak: Aldaba Zahar Baseria	14-15
🌀	Zintzilik: Gipuzkoa ezagutu argazkiak partekatuz	19
🌀	Kultura: III. Galtzakomik lehiaketa	20-21
🌀	Kirol salta: Patxi Caminos	22-23

Krisia eta langile mugimenduaren zereginak: hautabide marxista baten alde



Ibon Artola

Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Krisi kapitalista sistema orokorraren egonkortasunean eta sinesgarritasunean gogor ari da eragiten, gobernuetan eta nazioarteko foroetan nora eza eta nahaspila gailentzen den bitartean. Aurreikuspenaz ez dago fidatzerik: erakunde ekonomikoek egiten dituzten zuzenketak etengabeak dira eta etorkizuneko itxaropenei etsipenak eta zalantzak tokia hartu diete.

Ekonomia indartsuenen (AEB, eurogunea, Japon...) errekupezioaren inguruko datuek zalantza aurreikuspenak erakusten dituzte; gehiegizko ekoizpenak sektore guztiei eragiten jarraitzen du, eta kapital finkoan egiten den inbertsioak erorketa garrantzitsuak eta etenik gabekoak jasaten jarraitzen du. Bestalde, kontsumoak oso txikia izaten jarraitzen du eta jarraituko du zorpetze handienatik eta langabezia handiatzeko, zeina gutxitzen egotetik urrun gora egiten ari den ekonomia industrializatuenetan. Bankuen eta finantza erakundeen kiebren berriak ere edozein unetan eman daitezke. Krisiaren eraginak asko dira. Sistemaren egonkortasun ekonomikoari soilik ez dio era-

giten, merkatuengatik borroka interinperialista ere areagotzen du. Nazioarteko harremanak astinduak izaten ari dira indarren konfigurazio berri bategatik, kontraesanen handitzeagatik eta potentzia handien arteko gatazken gorakadagatik. Langabezia handi batekin, gastu sozialetan, soldata publikoetan eta pribatuetan murrizketekin, bitartean kredituak estutzen jarraitzen duenean, hau da, faktore guztiak kontsumoaren maila oso txikia izatea mantentzea bultzatzen ari direnean, berriro beste atzeraldi batean erortzea benetako aukera da. Ez dugu guk soilik esaten, FMK berak esan zuen udaberrian oso arriskutsua dela krisi fiskalaren potentzialaren aukera.

Honelako tamainako krisi ekonomiko batean langile mugimendua bidegurutze argi batean aurkitzen da: lantoki bakoitzera mugatutako borroka sindikala ez da batere eraginkorra lanpostuetako gutxieneko baldintzak defendatzeko eta patronalaren erasoei aurre egiteko, soldaten erosteko ahalmena mantentzeko edo aurreko belaunaldien lorpenak iraunarazteko. Argi dago borroka ekonomiko borroka politikoan bilakatu behar dela eta honek kapitalismoaren logikaren arauak ezin dituela onartu. Milioika langile familiarren gutxieneko bizi baldintzak eta ezinbestekoak defendatu behar baditugu, kapitalismoa auzitan jartzea behar-beharrezkoa da, benetako alternatiba sozialista baten alde eginez.

Kapitalismoa amaierarik gabeko izugarrikeria da, esan ohi zuen Leninek. Hondamendi hau olio orbain bat balitz bezala munduan zabaltzen ari denean, galdegina dezakegu: Ezinbestekoa al da hau? Saihestezina al da? Ez da ezinbestekoa eta ezta saihestezina ere. Honen arrazoia, bizirik irauten duen sistema zaharkitu eta erreakzionarioa da, kapitalismoa, banku handi eta partzuego multinazional gutxi batzuen diktadura izugarrian oinarritzen dena. Urte hauetan bizi izan ditugun gertaera guztiek Manifestu Komunistan bikain azalduko ideia bat azpimarratzen dute: estatu modernoaren gobernu klase burges guztiaren negozio komunak kudeatzen dituen batzorde bat besterik ez da.

Langile klaseak ulertuko ditu, krisiaren eskola gogor honetan,

sozialismoaren alde indartsu egiteko beharra, monopolioak, latifundioak eta banka desjabetzeko borroka, eta hauek biztanleriaren gehiengoaren kontrolpe demokratikoan ezartzeko beharra. Egungo kaosari konponbidea emateko ekoizteko indarren jabetza pribatuarekin eta traste zahar eta erreakzionarioa den estatu burgesarekin bukatzea beharrezkoa da. Ekonomiaren oinarritzko palankak langile klasearen kontrolpean ezarri posible litzateke gizartean dagoen ekoizteko ahalmen guztia erabiltzea eta modu harmoniatsuan munduko ekonomia planifikatzea. Horrelako baldintzetan egoera guztiz eraldatuko litzateke, langabeziaren gaitzarekin erraz bukatuko litzateke, guztiei lanpostu duin bat bermatuz. Ekonomiaren planifikazio sozialistari esker lan jardunaldia berehala murriztea posible litzateke, soldata jaitzi gabe, populazioaren gehiengoari bizitza sozialean, ekonomikoan, politikoan eta kulturean parte hartzeko aukera eman, eta hauek klase dominatzaileen monopolio izatea bukatuz. Ez litzateke inongo oztoporik egongo etxebizitza publiko, duin eta eskuragarri bat, hezkuntza eta osasun kalitatezko eta doako bat bermatzeko.

Hau da burgesiaren komunikabide handiek eta ideologia dominatzaileak sistematikoki ezkutatzeko diguten egia. Sozialismoa behar bat da baina ez da zerutik eroriko. Langile klasearen borroka kontzientek soilik lortu dezake eta horregatik beharrezkoa da ezkerreko masa erakundeek marxismoaren ideiak defendatzea. ©

Krisi madarikatua

Ba krisiaz, denon gaintek hegaka dabilen krisi madarikatuaz. Pertsona etorkinak gainera, modu latzagoan jasaten ari direna. Europa kanpoko atzerriarrek, guk ez bezala, lan egiteko baimen bat behar dute eta hau berritzen joaten dira orain arte "permanente" izena zuen eta orain "epe-luzerako" izena duen baimena eskuratzen duten arte. Baina dagoen lan faltagatik eta enpresen egoera kaxkarragatik, askok baimenak berrituz ezin dabilta. Hau da, atzerriartasun legeak erregularrak zeuden langileak irregularrak bilakatzen ditu. Gero, bi aukera dituzte, jaioterrira bueltatzea edo hemen geratzea, egoera irregularrarekin. Bizitza proiektu bat bilatzen milaka kilometro egin eta gero, uste duzue bueltatuko direnik? Buelatuko ote ginateke gu horrelako paradan suertatuko bagina?

Badago, ordea, beste krisi mota bat, beraiek bakarrik jasaten dutena, "gizatasun krisia" deitu daitekeena. Krisi garai hauetan diskurtso arrazistak gehitzen dira eta jendearentzat errazagoa da ezezagunaren eta ahularen kontra joatea eta kulpa guztia berari botatzea. Hau da gehienbat ni arduratzen nauen krisia. Denok gure partetik pixka bat jarri beharko genuke biztanleria berri honen arretan. Txipa aldatzea zailena indar eta ideia guztiak beraien integrazioan laguntzeko uztea, nola gaintek kendu pentsatzen ibili ordez?

"Etorkinek lana kentzen digute. Etorkinek dirua batu

eta beraien herrialdeetara eramaten dute (Eto'ok eta Kakak adibidez bai, baina besteek ez hainbeste, lasai). Etorkinek langabezia kobratzeko eskubiderik ez dute. Etorkinek ez dute kotizatzen. Etorkinek osasun zerbitzuak kolapsatzen dituzte..." Badakigu, Immigrazioaz, eguraldiaz bezala, edonork hitz egin deza keela baina, hainbeste ideia oker daude hortik bueltaka!

Inork ez du pentsatzen lan egin dezaketen etorkin gehienak lanean daudela eta kotizatzen ari direla (beraz, hona hemen langabezia kobratzeko eskubidea). Askok nahi ez dituzten lanak egiten dituztela (nahiz eta ikasketak maila oso altuak izan batzuk). Zahar eta haurren zaintza arduratzen direla, emakumeak lan mundura gerturatzea lagunduz. Pentsioen iraupena beraien ekarpenengatik 10 bat urte luzatu dela. Estatu mailan, 6 ezkontzatik 1, mistoa dela (EAEn 10etik 1, badakigu hemen moteltxoagoak garela kontu hauetan). Beraz, amodioa ere ekarri dute! Mesedez, ez dira ez zenbaki ez langile robotak, pertsonak dira, nahiz eta batzuei asko ez gustatu, beharrak eta nahiak dituzten pertsonak dira.

Badago esaldi oso esanguratsu bat immigrazio arloan: "Langileak behar genituen... eta pertsonak etorri ziren". Kolore askotakoak, kultura oso ezberdinekoak, baina azken finean, zu eta ni bezalako pertsonak. ©



Gorka Errasti

Immigrazio Teknikaria

5 Ez zait momentu hobereana tokatu lan berri honetan hasteko. Bulego berriari jarri eta lehenengo deiekin hasi nintzenean, denek, "uuuuf, ba zelako momentuan hasten zaren" Eta ni, zertaz ariko ziren.

Mintzalagunarekin lehen hitzetik euskaraz

Euskaraz aritzeko ohitura ez dutenei zuzendutako ekimena da Mintzalaguna. Euskaraz hitz egiteko ohitura zabaltzea du helburu, lehen hitzetik euskaraz aritzea, alegia. Euskara sentituz, gozatzea. Euskararekin maitemintzea.

Igor Mujika

Mintzalaguna egitasmoan izena emateko arrazoiak asko izan daitezke: giro euskaldunak ezagutzeko nahia, euskara maila hobetzeko desioa, erdi ahaztuta izan eta berresku-

raz jarduteko beharrik baduen ala ez, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura duen edo ez.

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko biezagarrri baino ez dira bete behar: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila edukitzea eta astean ordubete eskaini ahal izatea. Ordutegia, bakoitzaren zaletasunak,... kontuan hartuta, euskaraz aritzeko ohitura ez duten bi pertsona eta euskaraz hitz egiteko ohitura duen herritar batek osatutako taldeak egiten dira. Talde bakoitzak erabakitzen du noiz eta zertarako gelditu. Batzuk kafea hartzeko eta besteak hurrekin parkean egoteko, kirola egiteko edo perretxikuak biltzera joateko hitzorduak egin arren, guztiak helburu bera dute: elkarrekin denboran euskaraz hitz egitea.

Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatuta, azarotik ekainera egingo da Mintzalaguna proiektua Tolosan.


Asteroko ordubeteko hitzordua gain, afariak, irteerak,... antolatu asmo ditu Galtzaundik euskaraz hitz egiten duten pertsonak elkar ezagutzeko, eta, euskaraz jardunez ondo pasatzeko.

Orain artean Aitzol Udal Euskaltegiak koordinatuta egin da Mintzalaguna egitasmoa Tolosan. Bertan parte hartu dutenen arabera, taldekideak elkartu eta modu inkontzientean, zertaz aritu pentsatu gabe, euskaraz hitz egiten has-

ten dira. "Beti izaten dugu zer kontatu. Gure bizitzaz, gure arazoez,... hitz egiten dugu eta, azkenean, mintzalaguna lagun bilakatzen da. Asteroko ordu horretatik kanpo ere elkarrekin geratzen gara sarri, telefonoz elkarri deitzen diogu,... Harremana estutzen joaten da eta konfiantza sortzen da".

Mintzalaguna proiektua lehen aldiz Donostian jarri zen martxan. Bagera Euskara Elkartek gidatuta lehen taldeak 1993. urtean sortu ziren. Ekimen hark izaniko arrakastak bultzatuta, ondoko urteetan Lasarten, Arrasaten, Getxon,... hasi ziren Mintzalaguna egitasmoa antolatzen. Egun, Interneten ere badu bere lekua Mintzalagunak. www.mintzapraktika.org webgunean, esaterako, Mintzalaguna proiektuaren baitan herri ezberdinetan antolatutako ekimenak, euskaraz aritzeko gogoz direnei zuzendutako mendi irteerak, txat-a,... aurkitu daitezke.

Mintzalaguna proiektuan izena emateko 943 655 044 telefono zenbakira deitu, koordinatzailea@galtzaundi.com helbide elektronikora idatzi edo Galtzaundiren bulegoetara joan behar da urriak 4 eta 22 artean.

Euskaraz aritzeko halako egitasmo baten beharrez zaudela uste baduzu edo beharrez egon daitekeen norbait ezagutzen baduzu, zeren zain zaude? 

"Gaztelaraz aritzeko ohitura duen oro gonbidatuko genuke Mintzalagunera"

Axun Lopetegi eta Maixabel Zubillaga, Tolosako Aitzol Euskaltegiko langileak

Mintzalaguna egitasmoak zein funtzio betetzen du Tolosan?

Euskara ikasten ari diren edo ikasten aritu diren askok euskaraz hitz egiteko gune bat behar dute. Lotsak kentzeko, ingurune erdalduna izanik euskaraz aritzea kosta egiten zaielako,... Mintzalaguna egitasmoak horretan bidea errazten die. Aurreneko pausoa ematera, ohitura aldatzera laguntzen die. Denda, taberna,... batera joan eta erderaz eginez gero ez dago arazorik. Euskaraz kili-kolo hasten denak, ordea, ez daki besteak nola erantzungo dion. Inseguridade hori kentzeko balio du Mintzalaguna egitasmoak, astero ordubetez euskaraz lasai hitz egiteko aukera eskaintzen duelako.

Beraien artean gaztelaraz aritzeko joera duten gurasoentzat ere aproposa da. Izan ere, oso ohikoa da seme-alabei euskaraz hitz egin ostean, gurasoak beraien artean eta ingurukoekin gaztelaraz hitz egiten entzutea. Kiroldegian, osakidetzan, lagunartean, lantegian,... euskaraz hitz egiteko ohi-turarik ez duen edonor ere gonbidatuko genuke Mintzalaguna egitasmoan parte hartzera. Izan

ere, ohitura kontua da. Lehen hitza gaztelaraz eginez gero, hemen nahiz Donostian, hizketaldi osoa gaztelaraz egitearena da normalena. Horregatik, ohitura hori aldatzeko beharra sentitzen duen edonori zuzendutako egitasmoa da Mintzalaguna.

Euskaraz hitz egiteko ohi-turarik ez dutenak, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenekin elkartzen dira Mintzalaguna egitasmoan.


Hala da. Herritarrekin elkartu ditugu, eta ez irakasleekin. Izan ere, beraien funtzioa ez da irakasle lana egitearena. Hau da, Mintzalaguna egitasmoan izen eman duten batzuren euskara oso traketsa izanik ere, beraiekin elkartzen den pertsonaren lana ez da aditzak zuzentzearena, pertsona horiekin euskaraz komunikatzearena baizik. Elkarrekin dauden denbora tarte horretan beti euskaraz aritzearena. Euskaraz bizi den edonor izan daiteke Mintzalaguneko hitzun. Oso modu praktikoa da euskararen alde eragiteko.

Mintzalaguna egitasmoa orain Galtzaundik zuzenduko duen

arren, lau urtetan Aitzol Euskaltegiak koordinatu du. Zer nolako balorazioa egin duzue?

Balorazio ona egin dugu. Hiztunak oso gustura ibili dira. Horren erakusle, askok jarraitu egin nahi dute, sentsazio onak dituztelako. Euskaraz hitz egiteko beharra zutenek ere ekimen hau oso ondo baloratu dute, eta, beraz, Euskaltegi bezala ere oso balorazio positiboa egin dugu.

Dei bereziren bat egingo al zenukete?

Herritarrek Mintzalaguna egitasmoan parte hartzera animatuko genituzke. Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ohitura ez dutenak, batzuk ohitura ez dutenekin euskaraz hitz egitera, eta, besteak, euskaraz hitz egiteko ohitura hartzera. Zenbat eta jende gehiagok parte hartu, hobe. Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko ez dago zertan ikaslea izan beharrik. Euskaraz hitz egiteko ohitura ez duenak arrazoi bat badu Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko. Tolosan bizi gara, ez Madrilan. Beraz, pauso hori eman behar dugu. 

Irakurle taldea
urriko tertulia:
Eguna: urriak 7, osteguna
Ordua: 19:30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea (1. solairua)
Irakurri beharreko liburua:
"Ospitalekoak"
Mikel Anza



BENTA ALDEA
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

ratzeko beharra, lagunartean gaztelaraz aritzeko joera aldatu nahi izatea, euskara praktikatzeko,... Ez dira zertan arrazoi guztiak hemen idatziak egon behar. Bakoitzak badaki euska-

Txintxarri abesbatza

“Oso geurea sentitzen dugu korua eta uztea ez zaigu burutik pasa ere egiten”

Juantxo Aranburu, Joxe Mari Balerdi, Mila Begiristain, Xefe Balerdi eta Migel Mari Arabaolaza dira Txintxarri abesbatzan hasiera-hasieratik diharduten bost kideak. Jende asko, belaunaldi asko ikusi dute abesbatzatik pasatzen, taldera sartzen eta ateratzen, baina beraiek bidean aurrera jarraitu dute. Koruak berrogeita hamar urte bete dituen honetan, beraiekin bildu nahi izan dugu garai zaharrei eta berriei buruz hitz egiteko.

Amaia Goikoetxea

“Zer esan nahi du zuentzat abesbatzak berrogeita hamar urte betetzeak?”, galdetu diogu boskoteari. “Oso zaharrak garela!”, erantzun digute barre artean. “Abesbatza aurrera joan da ondo joan delako eta horrek poza ematen du”, dio Juantxok. 1980an orduan zuzendari zen Joxe Gastesiri omenaldia egin zitzaion, hogei urte bete zirela eta. “Hogei urte egitea sekulakoa iruditu zitzaigun, eta orain berriz...”.

Berrogeita hamar urtetan zehar musu-truk kantuan ari den jendea, herrian hainbeste abestu duen talde bat horrenbeste urtetan mantentzea... “Horrelako beste bat ez duk egon joaneko ehun urteetan”, dio Migel Mari. Garbi dute koruak berrogeita hamar urte bete izanak zerikusi zuzena duela izan dituen bi zuzendariekin, Joxe Gastesirekin eta Garbiñe Orbegozorekin,

alegia. “Bi zuzendariak herrikoak izan dira, musu-truk aritu dira, indar guztiarekin, eta hori sekulako zorzea izan da taldearentzat”, nabarmendu du Milak. “Konpromiso handia erakutsi dute momenturo; kantuak aukeratu, kontzertuak antolatu eta beste mila gauza egin dituzte urtea joan eta urtea etorri, eta sekulakoa lana da hori”. Alde horretatik Joxe eta Garbiñe oso antzekoak izan direla aipatu dute, konpromiso, lan, dedikazio eta pazientzia handikoak.

Tamalez, Joxe Gastesi irailaren hasieran zendu zen. Txintxarri abesbatzaren has-tapenetatik abestaldearen zuzendari izan zen, 1990ean Garbiñe Orbegozok, gaur egungo zuzendariak, erreleboa hartu zuen arte. “Indar handiz lan egiten zuen abesbatzaren alde”, azpimarratu du Juantxok. “Gogoan dut

behin Frankfurtera egin behar izan zuen bidaia batetik itzuli eta zuzen-zuzenean entsegura etorri zela, eta zer eta, entseatzeko jenderik ez!”. Joxerentzat abesbatza mundua zen, oso serio hartzen zuen kontua, eta pentsatzekoa denez, jendeak modu horretan hartzen ez bazuen, alegia, entseguetan fundamentu handirik erakusten ez bazuen, haserretu egiten zen. “Etortzea nahi baduzue, deitu”, esaten omen zien. Abestera Gipuzkoako herri guztietara joan behar zutela esaten omen zuen, eta diotenez, oso herri gutxi geratu zitzaizkien bisitatu gabe.

Bi zuzendarien lanarekin batera, urtea joan eta urtea etorri abesbatzan jarraitu duen taldetxo bat egon izanak ere badu zerikusirik ibilbide luze horretan; jende asko pasa da korutik, baina multzo txiki bat

hasieratik mantendu da bertan, iraunkor. Urte hauetan guztietan sekula korua uztea burutik pasa ote zaien galdetuz, oso garbi erantzun dute. “Oso geurea sentitzen dugu korua eta uztea ez zaigu burutik pasa ere egiten”, ziurtatu dute.

Bost lagun hauek urte asko daramate astero-astero entseguetara joaten, eta azkenean entseguak lagunarte bihurtu dira eurentzat. “Astean zehar ikusten ez duzun jendea topatzen duzu bertan, eta kontuak esan beharra ere izaten da”, aitortu du Milak. Gainera, belaunaldi ezberdinetako jendea batzen du koruak. “Normalean kalean topatu eta akaso agurtu ere egingo ez zenukeen jendeari kaso egiten diozu hura ere abesbatzara joaten delako. Belaunaldi ezberdinak lotzeko ere balio du”, dio Xefek.



Juantxo Aranburu, Joxe Mari Balerdi, Mila Begiristain, Xefe Balerdi eta Migel Mari Arabaolaza.

Bestetik, abesbatzara kanpotik etorri izan direnen eta egun etortzen direnen laguntza ere azpimarratzekoa dela uste dute. "Zorte galanta izan dugu horrekin, laguntza handia izan da kanpoan bizi den jendea hona abestera etortzea", onartu du Migel Marik. Une honetan beste toki batzuetatik datozen hamar lagun inguru ditu Txintxarri abesbatzak.

Ezberdintasunen aurrean tinko

Txintxarri abesbatzak urte korapilatsuak ere ezagutu ditu. Gizarteak dituen arazoak azkenean komunitate eta talde txikiagoetara pasa ohi dira, eta abesbatzarekin beste horrenbeste gertatzen da. Po-

litika aldetik zenbait urte oso gogorak izan ziren Euskal Herrian, jendea oso haserre zebilen, baina egoera horietan ere abesbatzak mantentzen jakin du, pentsaera ezberdinetako jendea egon arren ezberdintasun horiek alde batera utzi eta aurrera egin du. Xefek Alegiako gaztetxearen auzia zela eta sortutako tentsioa gogoratzen du bereziki. "Gaztetxea botatzearen alde ziren taldeko batzuk, horren aurka beste batzuk, eta horrek tentsio handia sortu zuen gure artean; baina horri buelta ematen jakin genuen".

Elizarekin ere makina bat komeria izan ditu abesbatzak; herriko erretorea zenarekin, gotzaintzarekin... zenbat borroka! "A zer nolako

eskutitzak bidaltzen zituzten", aipatu du Milak. "Esaterako, *Mait*e abestiaren inguruan zioten elizan abesteko ez zitzaizela egokia iruditzen, maitasun abesti bat zela... Baina ez ziguten ez abesteko esaten, soilik ez zitzaizela egokia iruditzen, eta beraz, abestu egiten genuen". Urte batean Joxe eta biak joan omen ziren herriko erretorearengana Gabonetan eskaini behar zuten kontzertuaren berri ematera. Erretoreak abestien letrak gotzaintzara bidaltzeko eskatu zien, eta hauek ezetz, gabon abestiak zirela eta ez zeudela horretarako prest. Erretoreak berriz bidaltzeko eta bidaltzeko, eta hauek ezetz eta ezetz, nahi bazuen berak irazkur zitzala letra guztiak, bai-

na ez zeudela gotzaintzara bidaltzeko prest. Azkenean, "egizue nahi duzuen" erantzun omen zien erretoreak. "Hala ere, denborarekin hark garaitu gintuen. Izan ere, orduan hasi ginen Gabonetako kontzertuan soilik gabon abestiak kantatzen", gogoratzen du Xefek. "Lehenago kalekoak zein Eguberritakoak abesten genituen, baina pixkanaka irabazi egin zigun borroka hura".

Berrogeita hamar urte ez dira alferrik pasatzen

Dena aldatzen da denboraren poderioz, eta abesbatzak ere ezagutu du aldaketarik, bai kideei dagokienez, baita funtzionatzeko moduari dagokionez ere. Esaterako, garai batean entsegu bakarra egiten zuten astean, eta gaur egun bi aldiz biltzen dira. Gainera, entseguen hasieran ahotsa berotzeko ariketak egiten dituzte baina hori gerora sortu den zerbait izan da. "Bokalizazioa orain hogeita bost urte inguru egingo genuen lehen aldiz", gogoratzen du Milak.

Kontzertuei dagokienez ere bada aldaketarik. Orain baino saio luzeagoak eskaintzen zituzten, abesti gehiagorekin, eta emanaldiaren erdian atsedendia egiten zuten. "Gainera, orain kontzertua baino bi ordu lehenago biltzen gara ahotsa berotzeko, baina garai hartan kontzertuaren ordurako biltzen ginen eta momentuan erabakitzen genuen abestu edo ez", dio Xefek. Bestetik, emanaldi bat eskaintzera joaten zire-

nean leku gehienetan meza abesten zuten aurretik, eta gero etortzen zen kontzertua. "Gogoan dut Segurara joan ginen batean nola Joxek abesti bakoitzaren azalpena eman zuen kantatu aurretik". Garai hartan euskaraz abesten zituzten abesti gehienak: Aita Donostiarenak, Iparraldekoak... "Batzuetan Joxek gaztelaniaz ekartzen zituen abestiak eta euskaratzen aritzen ginen", azaldu du Milak.

Hasiera batean abestaldean emakumezkoak baino

gizonezko gehiago zegoen arren, berehala egin zuen balantzak beste aldera. Lehen urteetan neskak gutxi eta gazteak ziren, eta gizonezkoak berriz dezente gehiago eta helduagoak. "Gizonezkoak zaharragoak izan dira beti, eta errazago mantendu dira; hau da, emakumeak gehiago sartu eta atera dira, familia izan dutelako edo beste arrazoi batzuegatik. Gizonezkoak gehiago mantendu dira". Hogeita hamabost lagun inguru hasi ziren

abesbatzan, eta uneren batean hirurogeiraino iritsi ziren.

Janzkerak ere aldatu dira. "Hasieran jaietako jantziekin ateratzen ginen abestera. 80ko hamarkadaren hasieran lehenengo uniformeak iritsi zen: jertse granatea, galtza edo gona grisak eta alkandorra zuria". Ondoren etorriko ziren atorra zuria eta praka edo gona beltzak, aurreraxeago koloretako alkandorak, emakumeak goitik behera beltzez koloredun zapi batekin... ☺



2010. Portugal

2006. Almazan

Bidaiak

Berrogeita hamar urte hauetan kanpora ere atera da Txintxarri abesbatza bere doinuak han eta hemen zabaltzera. Azken bidaia pasa den Aste Santuan Portugalera egindakoa izan da, berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko. Hogeita bost urte bete zituztenean Alemaniara joan ziren, Nuremberg-era. "Saltxitxak jan eta garagardoa edaten ikasi genuen han!", dio irri artean Migel Marik. Joakin Agirre alegiarra bertan bizi zen eta haren bidez antolatu zuten bidaia. "Halakoetan beti gertatu ohi zen bezala, Joxek xehetasun guztiak prestatu zuen, berak egin zuen dena: nora joan behar genuen, zer ikusi behar genuen...", azaldu du Milak. Loiolan

meza abestu eta handik zuzenean abiatu ziren Alemaniara. "Ikustekoa izan zen hara iritsita-koan egin ziguten harrera, afari eta guzti!". Bigarren aldiz Alemaniara, Britainiara eta beste hamaika tokitara eramanean du Txintxarri abesbatzak bere kantua berrogeita hamar urte hauetan. Urte asko dira 1.700 biztanle baino ez dituen herri bateko koruarentzat. Baina indarrez daude, oraindik kanturako gogoz, eta iraganean gertatu bezala aurrerantzean ere une zailik ezagutuko duten arren, jakin dezatela orain arte moduan ezberdintasunen aurrean tinko mantentzen, eta jarrai dezatela txintxarrien kantua txoko guztietara zabaltzen.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Berazubiko Jaiak, auzoa kanpotik birsortzen

Tolosako Berazubi auzoa ezaguna da besteak beste Berazubi Futbol Zelaiagatik edo 1922an ofizialki Tolosa Futbol Zelaia deituriko horrenagatik. 3.000 ikusleentzako tokia duen eraikin honen eta bertako talde beraren kolore urdina izan da Uzturre Elkartek berea egin duen kolorea Berazubi auzoko jaiak birsortzeko.

Naiara Roldán de Aránguiz

Urdin koloreak gazte lokal batetik sortutako elkarteak zabalduko dituen Berazubiko Jaiak 2010eko kartel eta esku-orrietan hartuko du protagonismoa antolatutako ekitaldi ezberdinak plazaratzeko orduan; bertso afaria, kontzertuak, txapelketa ezberdinak eta antolatzaileen esanetan garrantzi berezia duten danborrada eta babarrun jana, auzoan erroturiko aparteko ekintzak izanda.

2010eko ekitaldi nagusiak

2010eko egitarauan bi ekitaldik hartuko dute protagonismo nagusia, igande gauerdian ospatuko den danborradak eta astearte eguerdiko babarrun janak. Bi jarduera hauetan bertako bizilagunek hartzen dute parte eta baita dagoeneko auzoan bizi ez direnak ere, ekintza hauetan parte hartzeko Berazubira joz. Danborradarekin aurten lehenengoz auzoak zuten ohitura berreskuratu nahi izan da; blusak eta praka urdinak auzoko kaleetatik barrena ikusiz, danbor hotsak entzunez, Inauterietako larunbata izango

balitz bezala, 4 urteko umearen jostailuzko danbor hotsetatik hasi eta esperientzia gehien duen adindu horren konpasak bitartean.

Uzturre Elkartearen ekimena

Berazubi auzoak zenbait urtetan jaiak antolatzeari utzi zion edo behintzat egitarau oso bat prestatzeari egoera zail bati aurre egin behar izan zionean; bizilagunen arteko desadostasunak eta diru-galerekin auzoko festen amaiera ekarri zuten.

Kasualitatea testigu 20 bat lagunek osatutako lagun koadrila Berazubin hartu zutela ostaru, bertan gazte-lokal bat ireki zuten duela bost urte, bizilagunen artean sortu zuten mesfidantzaz zipriztindua. Berazubiko jaiak parrandarako uzten zuten parada aitzaki hartuta, juegarako aukera hori erreperatu nahiarekin hasi ziren hastapenetan lanean baina Uzturre Elkarteko Unai Olalde aitortzen duen moduan "urtero-urtero joan gara pixkanaka lehen zegoen zer edo zer erreperatzen, urtero-urtero pausu bat eman dugu bizilagunen errespetuagatik".

Unai Olalde azaltzen duen moduan bi lokalen artean arduratzen dira gaur egun urte-urtera auzoko jendea geroz eta gehiago bereganatzen, antolakuntzari dagokionean zerbaitez ardura daitezten. Egun, egoera onartua eta eskertua badago ere hasiera zaila izan zutela zehazten du gazteak: "lehenengo urtea oso zaila izan zen, 2007. urte horretan zurrumurruak egon ziren, gu aberastu nahi ginela uste zuten". Zurrumurruez gain ekintza zehatzak ere izan ziren auzokideen partetik, Udalarik festak antolatzeko baimena ez emateko eskatuz. Gaur egun ordea egoera bestelakoa da Uzturre Elkarteko gazteak azaltzen duen moduan: "gaur egun Berazubi Elkartearen eta Udalaren oniritzia daukagu".

Hasierako urte hartan gazteek lan handia egin behar izan zuten, demostratuz euren nahia ohitura erreperatzea eta bizilagunen arteko harremana erreperatzea zela. Hasiera horretan antolakuntzak aurreko urteetako kartelen irudia erabili zuten, aurten ordea irudi berria zabaltzeari ekin diote. Horrela azaltzen du Unai irudi aldaketaren zergatia: "irudia aldatu dugu, hala ere ez dugu irudia erabat jorratua; kolorea aldatu dugu, urdin kolorea aukeratu dugu kanpo futbolarekin identifikatzeko, bi lagun festa giroan jarri nahi izan dugu, azkenean jaia da irudikatu nahi izan duguna". Kartel zaharren beltz

kolorea albo batera utzi eta urdin koloreari eman diote sarrera beraz, berak aitortzen duen bezala "kartel beltzak hileta-elizkizunetarako direlako".

Berazubi auzoan gazte talde honek lana amaitu ez duela argi geratzea nahi du, oraindik bere tokia topatu nahian dabil, bizilagunekin, udalarekin eta baita sortu berri duen irudiarekin ere. Etorkizunari begira urte batzuetan behintzat bertan mantenduko direla ziur dago Unai Olalde: "lokalaren kontratua daukagu, lokalik izango ez bagenu edo bizilagunekin harremanik izango ez bagenu oso zaila izango litzateke hau aurrera eramatea, orain badugu eguneroko erlazioa auzoarekin; mantentzen saiatuko ginatke, esperientziarekin eta aurretik egindako lanarekin lortu duguna mantentzen saiatuko ginatke".

Uzturre Elkartek Berazubi auzotik alde eginez gero bertako festek momentu honetan behintzat jarraipena izatea zail ikusten du bertako partaide den Unai: "guk alde egiten badugu, pentsatzen dugu auzoko jendeak ez duela jarraituko; auzoko jendea oso erreta dago, diru asko galdu zuten eta euren artean pike pertsonalak ere badaude".

Hala ere, etorkizunari begira baikor mantentzen da Unai, ondorengo baieztapena luzatuz: "gu auzoan gauden bitartean auzoko festak beti egongo dira".



Egitaraua

Ostirala, urriak 8

Arratsaldeko 18.30etan hasita txupinazoa, bertso poteoa eta bertso afaria, Switch, Yucatan eta Peachy Joken kontzertuak eta "ElektroNuclearFusioSesioa" Puntzakarekin.

Larunbata, urriak 9

Goizean tortilla patata eta paella txapelketa. Arratsaldean mus txapelketa eta ume jolasak eta gauean danborrada, disko festa, DJ Txoznan eta goizaldean txokolatada.

Igandea, urriak 10

Egunari hasiera emateko txistulariak arituko dira auzotik zehar. Gauean plazan Zahagi Sagardoa, norberak bere afaria eramanda eta "Zurrumuru Digitala" Puntzakarekin.

Asteartea urriak 12

Goizean goiz meza. Eguneko ekitaldi nagusia, babarrun jana, eguerdian izango da eta ondoren toka txapelketa.



María Victoria Lucero

“Alzheimerra burmuinean sarea egiten hasten den armiarma da”

Naiara Roldán de Aránguiz

Iragan irailaren 21ean Alzheimerren Nazioarteko Eguna aitzaki hartuta María Victoria Lucero-ekin, Tolosaldean lanean diharduen AFAGIko psikologoarekin, bildu da Galtzaundi gaixotasunaz eta elkarteak burutzen duen lanaz mintzatzeko. Berak protagonismoa senitartekoei, zaintzaileei eman nahi izan die, izan ere, bere hitzetan gizarte honetako ahaztuak izaten dira. Gaixotasuna kalera ateratzeko, ezagutarazteko eskaera egiten du, Tolosaldean demenzia gaitzak ezkutatzeko omen dagoen ohitura horri aurre eginez.

Zergatik da beharrezkoa Alzheimerren Nazioarteko Eguna?

Jendea Alzheimer eta demenziak kalean benetan daudela kontzientziatzeko eta urtean behin bada ere jendea gaixotasun hauek existitzen

direla konturatzeko. Gaixoak kontutan hartzeaz gain zaintzaileak ere gogoan izateko; azken finean gaixoei bizitza kalitatea izan dezaten egunero-egunero jo eta ke lanean dabilenak baitira. Urtean zehar zaintzaileekin ez da inor gogoratzen.

Egun hau urtean zehar etxean demenzia bat bizitzen ari den horrek elkarriketaren bat entzun eta zergatik ez duen laguntzarik eskatzen planteatzeko baliagarria izaten da. Gaia kalera ateratzeko balio izaten digu, Tolosaldean adibidez gaixotasuna ezkutatzeko ohitura dago eta kontrakoa egin behar da, kalera atera beharra dago, tabu bat ez izatea, gizarte estigma bat ez izatea lortu beharra dago.

Senideentzako elkarteak daudela azalera garrantzitsua da. Seniderik gabe gaixoak ezin go luke ia ezer egin. Diagnostikoa gaixoari egiten zaio baina gaixotasuna jasan, bizi eta pairatzen duena, eguneko buruhausteak pairatzen dituena zaintzailea da. Eta zaintzaileaz nor arduratzen da? Atentzio guztia gaixoarengan jarrita dago, zaintzailea ahaztuz. Noizean behin argitara ateratzen saiatzen gara, jakin dezaten gu hemen gaudela. Euren bizitza mantendu behar dutela jakin behar dute, gaixoz arduratzeko euren bizitza alde batera utziz gero ezin izango dute aurrera jarraitu.

Noiz sortu zen AFAGI, Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoen Elkarte, eta zein izan da bere ibilbidea?

Elkartea era ofizialean 1991n sortu zen. Horren aurretik senide talde bat bazegoen, urduri zegoena, euren diagnostikoak jasota zituzten baina ezer gutxirekin etxera bueltatu behar izaten ziren, laguntza eta orientabiderik



gabe. Egoera horretan sortu zen lehen taldea, denborak aurrera egin ahala handiagoa bilakatu zen, elkarte bihurtu eta profesionalak sartuz. Hasieran senideen taldeak sortu ziren, baita hemen, Tolosan ere, jendea bildu egiten zen euren kezka eta ezinegona azaltzeko, lagundu, aholkua eman eta jasotzeko eta gehien bat babesa emateko. Donostian sortu baina zabalduz joan zen, Tolosaldera 1999an heldu zen. Hasieran 14 bat bazkide izan eta gaur egun Gipuzkoa mailan 900 bazkide ditu.

Zein da AFAGIren egitekoa? Nola egiten du lan eta nola eramanen du aurrera bere proiektua?

Gaur egun Zuzendaritza Batzarra senideek osatzen jarraitzen dute baina atentzioa profesionalok ematen dugu. Gure egitekoa arreta psiko-soziala eskaintzea da; informazioa, aholkuak eta senitartekoei babesa ematea. Laguntza psikologikoa, prestaketa ikastaroak, fisioterapia ikastaroak, familiartekoein eta gaixoein egindako oporraldiak, zaintzaileentzako formakuntza ikastaroak... Senideen eskaeraren arabera gure eskaintza ere moldatzen joan gara, ate

ezberdinak joz diru laguntza ezberdinak jaso ahal izateko.

AFAGIko Alzheimerrez gain bestelako demenziak ere landuko ditu, ezta?

Elkarteari 1991n jarri zitzaion izena, orduan diagnostikatutako guztia Alzheimer zen, izena aldatu ez badugu ere demenzia guztiak jorrotzen ditugu (Alzheimer, demenzia frontotemporalak, parietalak, Lewin gorpuak, afasiak, jende gazteak jasandako demenziak...). Diagnostikatutako guztia gainera ez da Alzheimer izaten.

Lana aurrera eramateko orduan zein arazori egin behar izaten diozue aurre?

Hemen, Tolosaldean dagoen arazoa ondorengoa da, jendea ez dela elkartera etortzera ausartzen. Tolosaldean bereziki jendea asko kostatzen zaio... betidanik etxekoandreak arduratu izan dira etxekoak zaintzeaz, bakarrik egin izan dute eta horrela egin behar dela uste dute; bakarrik, inolako laguntzarik gabe. Guk esan nahi diegu laguntzarekin askoz hobeto egingo dutela, laguntzarekin bai gaixoarentzat eta baita zaintzailearentzat ere bizi kalitatea eskuratuko dute-

la. Zaintzaileak atsedena izanez gero, indarra eta pazientzia berreskuratuzko gai izango da.

Baina gaur egun zaintzaileak direnak hemendik urte batzuetara baliteke gaixoak izatea. Ez al dago pentsamolde aldaketa bat?

Ez erabat, lehen alabak ziren zainketaz arduratzen zirenak, alabek ez zuten lanik egiten baina gaur egun guztiok egiten dugu lan. 24 orduko arduraren behar duen pertsona bat zainetzeak norbaitek lana uztea suposatzen du edo agian bestelako planteamendu batzuk sortzea eskatzen du. Zainketa modu berriak planteatzen ari dira, baina oraindik gaur egun guztia alde batera utzi eta gaixoa zaintzearen kasua ere ematen da. Baina 10 edo 20 urtez norbanakoaren bizitzari ezin zaio uko egin, ondoren bizitza hori erreperatzea oso zaila da.

Zertan datza zehazki zure lana psikologo moduan?

Normalean ni Tolosaldera ostiral goizetan etortzen naiz (10.00-13.00), Euskal Herriko Plazako Zentro Sozialean biltzen naiz senideekin. Familiartekoei AFAGIra deitzen dute, mediku





duz. Zenbait pertsonak Tolo-sara baino Donostiara joatea nahiago dute. Hori kontutan hartu beharra dago.

Argitaratu berri den datu batek jakitera eman du Gipuzkoan 7.500 familiek jasaten duten gaitza dela eta 10 urte barru 15.000ra hel daitekeela. Errealitatearekin bat al dator?

Gure aldarrikapenetako bat datu-baserik ez dugula da, diagnostikoa dutenen datu-baserik ez dagoela. Baina errealitatea hor dago, geroz eta jende gehiago kontsultategietara etortzen da, demen-tzia unitateak gainezka daude eta gure kasuan azken bi urte hauetan eskaintzen dugun arreta psiko-sozialak %90ean gora egin du. Demen-tzia mota ezberdinak ematen ari dira. Nik uste kopuru hori bete egingo dela, zoritxarrez errealitate izango da.

Alzheimerrak gaur egun sendabiderik ez badu ere zertan dira ikerketak?

Diagnostiko goiz-tiarrean lanean dihardugu, 10 urtez horretan lanean gabil-tza, aurrerapen handiak eman dira, adibide bat jartzearen demenzia irizpideak, kog-nitibo arinaren irizpideak, oraintxe aldatu berri dira, 24 urtetan inolako aldaketarik egon gabe egon ostean. Diag-nostikoa da geroz eta gehiago bilatzen dena.

Nolabait esateko, Alzheimerra burmuinean armiarma-sarea egiten hasten den armiarma da, armiarma-sare horrek neuronak itzaltzen ditu. Guk zantzuak antzematen hasten garenean armiarmak 10 urte daramatza ehuntzen, lehen 15

-20 urte zeramazkienean antzematen hasten zen. Hasiera-ko sintoma horiek antzematen ditugunean medikazioak armiarma-sarea gelditzen saiatzen da, baina armiarma bere horretan jarraitzen du. Armiarma non dagoen jakin nahi dugu, izan ere ez dakigu demenzien jatorria non dagoen, hezia geroz eta lehenago jarriz gero armiarma-sare gutxiago pasako da bertatik.

Diagnostikoa geroz eta lehenago eginda, botikaz lagunduta hasierako fase horretan 2-3 urtez iraun daiteke. 5 urte daramazkigu psikoestimulazioarekin eta orain medikazioarekin batera zerbait atzeratu daiteke gaixotasunaren garapena. Ezin dugu jakin zein kasutan izango duen eragina eta zeinetan ez, izan ere, ez dugu armiarma horri buruzko datu gehiegirik. Ez dakigu armiarma hori non dagoen eta hau nola gelditu baina egon badaude egin daitezkeen gauzak.

Zer gomendatuko zenieke demenzia gaixo baten senitartekoei?

Nik jendeari diagnostiko baten bila joateko gomendioa egingo nioke. Eta noski baita laguntza bilatzea ere. Askok errez esaten dute "ni edozer gauzari aurre egiteko gai naiz". Ez gara ez super-emakumeak, ez super-semeak ez super ezer ez. Gizakiak izanik gure mugak ditugu; demenziek gu gaintzen gaituzte. Hasieran dena ematen duzu baina demenziek 20 urteko iraupena ere izan dezakete. Hasierako bi urtetan dena eman eta errez gero, nor arduratuko da orduan gaixoaz? Gutxienez informazioa bilatuko nuke, bes-telako senideekin hitz egingo nuke.

Zintzilik



Txarli Gesteira
Internet erabiltzailea

Argazkiak lekutzeko eta partekatzeko hainbat toki aurkituko ditugu interneten, hala nola Flickr, Picassa, Panoramio edota Euskal Herrian garatutako Nirudia, Argazkiak.org, azken hau dohainik eta argazki kopuru mugarik gabekoa gainera... Nahiz eta agian lokalagoa suertatu daitekeen proiektua izan, GureGipuzkoa proiektua aurkeztu nahi nizueke (ezagutzen ez baduzue behintzat), Gipuzkoako ondare grafikoa sarean libre.

Gipuzkoa ezagutu argazkiak partekatuz

GureGipuzkoa (<http://www.guregipuzkoa.net>) argazkiak partekatzeko dohaineko webgune bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu eta bultzaturikoa. Iaz jarri zuten martxan, hasiera batean, Indalecio Ojanguren eta Sigfrido Koch-en bildumak publikoaren eskura jarri ziren, aldi berean erabiltzaile orok bere edukiak webgunean partekatzeko aukera zuen.

Urtebete geroago, Juan San Martin eta Jesus Elosegiren bildumak gehitu dituzte, Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinaturiko elkarlan hitzarmen bati esker. Bertan aurki dezakegu, Kutzako Fototeka, 1.300.000 argazkiz osatua. Hauen artean, Marin Funtsa, Foto Marin-en bilduma eta Car Funtsa, Foto Car-en bildumak aurkituko ditugu.

Argazki ikusgarriak topatzeko aukera ederra dago, Agirre Lehendakaria Atotxan 1933. urtean, Tolosako Iñauteriak 1927. urtean, Eibarko mendizale talde bat Balerdi mendiaren tontorrean 1960. urtean...

Bilduma hauekin batera, edozein erabiltzaile igotako argazkiak ere topatuko ditugu. Honela, GureGipuzkoa-ko argazkiek bi jatorri nagusi dituzte, alde batetik Kultura eta Euskara Departamentuak kudeatzen dituen argazki edo bildumak eta bestetik erabiltzaile partikularrek beraien kontuetan erakusten dituzten argazkiak. Gipuzkoako iragana eta oraina irudien bidez uztartuz.

Alde teknikoan ere, argazkien eskuragarritasuna errazteko hainbat tresna ga-

ratu dituzte. Ikusienak, bisitatuenak, ... tag edo etiketen bidez ere topatu ahal dituguk nahi ditugun argazkiak. Eta baita, oso praktikoa den geokopapenaren bitartez. Argazkiak igotzerakoan, kopapen geografiko bat gehitzeko aukera dugu, hau da, argazkia ateratako tokiaren informazioa gehituko diogu. Honela mapan bilaketa bat egin nahi dugunean, mapan bertan gerturatzen goazen heinean, inguru horretan ateratako argazkien zerrenda izango dugu ikusgai. Zenbat eta gehiago gerturatu mapan, orduan eta bilaketa zehatzagoa izango da.

Argazkien lizentziak Creative Commons lizentziapean daude, edozeinek erabili ahal ditu, beti ere jatorria aitortuz, partekatuz.



kontsultategian edo hedabideetan gure elkartearen berri izan dutelako edo neurologoak horrela gomendatu dielako. Tolosan

bertan bilera egiten dut senideekin eta nire eginkizuna informatzea, aholkatzea eta babesa ematea da; ez soilik hasieran, gaixotasuna irauten duen bitartean baizik.

Aholkua ematen diet gaixotasunaren seinaleei, baliabideei, portaerei eta sentimenduei buruz; senideak eskatzen duenaren arabera gauza bat edo beste egiten dugu. Momentu horretatik aurrera konfiantza sortzen joaten da eta behar edo nahi duten heinean biltzen joaten gara. Gehienek ez dute nahi izaten biltzen garelako gizartean jakiterik. Kulturalki hori aldatu



beharra dago. Gezurra ematen badu ere giza estigma hau oraindik orain egon badago. Egon badago kalera ateratzen ez den jendea bere gaixoak portaera arraroak dituelako. Zergatik ez gara kalera aterako? Horrelako egoerei aurre egiteko teknika ezberdinak badaude eta guk horrelakoak lantzen ditugu.

Tolosako AFAGik zenbat pertsoneri eskaintzen die laguntza? Zenbat kasu egon daitezke diagnostikatuta Tolosaldean?

Gipuzkoan iaz 470 pertsoneri eman genien laguntza, Tolosaldean horren %5a lan-

Galtzakomik lehiaketa ezagun dute Joseba Antxustegietxarte eta Josu Mitxelena komikilariek. Lehena jada abian den 3. komiki lehiaketako epaimahikidea eta antolatzailea da. Mitxelena, berriz, iazko saridunetarikoa bat da. Biekin hitz egin du Galtzaundik.

Igor Mujika



Joseba Antxustegietxarte, Galtzakomikien antolatzailea

“Galtzakomik etorkizuneko lehiaketa da”

16 urterekin hasi zen komikiak egiten eta, egun, Galtzaundi aldizkariko komikilaria izateaz gain, Galtzakomik lehiaketaren antolatzailea da. Bere esanetan, Galtzakomikiek orain artean izan duen arrakastak “lanean jarraitzeke gogoia ematen du”.

Komikiak epaitzerakoan zer izaten duzue kontuan?

Komiki lehiaketa izanik, aurkeztutako lanak komikiak ala marrazkiak diren aztertzen dugu lehenik. Izan ere, komikia izateko 2 edo hiru bineta izan behar ditu, gutxienez. Ondoren, komikiko marrazkiak eta mezua aztertzen ditugu. Mezua hitzen bidez ala marrazkien bidez transmititu daiteke. Marrazkia aztertzerakoan

koan, bineten errekorridoa, gertutik eta urrutitik nola dagoen enkoadrea, perspektibak,... begiratzen ditugu. Halaber, komikian erabiltzen den hizkuntza komunikatiboa den ala ez baloratzen dugu: zerbait esaten duen, komunikatzen duen, engantzatzen duen, freskoa den,...

Hirugarren edizioa da aurten goa. Zein balorazio egin duzue orain arte egindakoak?

Balorazio ona egin dugu. Hau etorkizuneko lehiaketa da. Hasi berria da. Parte hartzaileak eta erakusketara joaten direnak gustura egoten dira. Horrek lanean jarraitzeke eta pauso berriak emateke gogoia ematen digu.

Lehiaketan hiru kategoria daude: 12 urtetik beherakoak, 12 eta 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Zer berezitasun du bakoitzak?

12 urtetik beherakoan artean oso arrakastatsua da Galtzakomik lehiaketa. Horrek euskarazko komikigintzak etorkizunik baduela amestera eramaten gaitu. 18 urte artekoen lanek euskaraz disfrutatu egiten dela erakusten digute. 18 urtetik gorakoen lanak profesionaltasun bidean egon daitezkeenak dira eta, horien komikiak jasotzea balio handikoa da.

Landutako gaiak dagokienean, baten bat nabarmen-tzen al da?

12 urte bitartekoen artean, gazteen hainbat bizipenetatik sortutako gaiak lantzen dira. Fantasiozkoak izaten dira. Modan dinosaurioak badaude, dinosaurioak agertzen dira,... Helduek, berriz, gai oso ezberdinen inguruan egiten dituzte komikiak.

Ordenagailuak komikigintzan ere eragin du. Nabaritzen al da?

Bai. Ordenagailuarekin emaitza oso ikusgarriak lortzen dira baina ordenagailurik erabili gabe egindako marrazki oso onak ere jasotzen ditugu. Ordenagailuak koloreak bizitzeko,... balio du, batik bat. 12 urte bitartekoek, besteek baino gutxiago izan arren, erabiltzen dute ordenagailua. 18 urte bitartekoek asko erabiltzen dute eta, hortik gorakoek, oraindik gehiago.

Elkarrizketari amaiera emateko, dei bereziren bat egin beharko duzu.

Jendea parte hartzerako gonbidatuko nuke. Zahar eta gazte, ume eta ez hain ume, komikiak egin eta Galtzakomikien parte hartzerako gonbidatuko nituzke.

Josu Mitxelena, marrazkilaria

“Euskarazko komikigintzarako ez dira garai onak”

Josu Mitxelena oiartzuarren *Friki leku* komikiak irabazi zuen iaz 18 urtetik gorakoan artean. Aurten ere 38 urteko oiartzuarrek bere sormen lanen bat aurkeztuko du Galtzakomikera. Izan ere, bere esanetan, komikiak komunikatzeko xedez sortzen dira eta lehiaketak komikiak plazaratzeko bidea dira. *Friki leku* komikia eta iaz irabazle nahiz bigarren suertatu zirenak Facebook-en Galtzakomikien lagun eginda ikusi daitezke.



Noiz egin zenuen lehen komikia?

18 urterekin egin nuen lehen komikia, duela 20 urte beraz. Pasaiko komiki lehiaketara aurkeztu nuen. Marrazten, ordea, lehenagotik hasi nintzen. Betican izan dut marrazteko zaletasuna, ikastetxean monigote,... asko marraztua naiz.

Ofizio ala afizio duzu komikigintza?

Komikigintza ofizio eta afizio dut. Lan gehiegirik ez dago, ordea. 10 urtez marrazki bizi-dunak egiten aritu naiz Irungo enpresa batean. Orain Freelance moduan egiten dut lan. Ikastetxeetako liburuentzako ilustrazioak egiten ditut eta, publizitate agentzientzako, diseinatzaile grafikoentzako,... ere egiten dut lan.

Nola osatzen du komiki bat?
Lehendabizi arkatzarekin

oso sustraitua dago komikigintza. Jende heldu asko ikusten da komikiak irakurtzen metroan. Frantzia ere jende heldu asko ikusten da komiki dendetan. Euskal Herriari dagokionean, zerbait orri egitean izaten da arrakasta. Xabinatorrek, esaterako, izan du. Hala, oso gehiago landuko bagenitu, zaletasuna hedatzea eta argitaletxeetako ateak zabaltzea lortuko genuke, agian. Izan ere, komikiak saltzea zaila izanik, zaila da argitaletxeek komikiak publikatzea eta, lehenengo aukera ere ez badugu,... Agian, argitaletxe batzuk, kultura saila,... komikigintza bultzatzen saiatuko balira, komikigintzaren egoera beste bat izango zen. Ildo horretan, Xabiari aldizkaria egiten ari den lana txalotu behar da. Ikastetelan banatzen da eta komikiekiko zaletasuna bultzatzen du. Gakoa hor dago, zaletasuna bultzatzean.

Definituko al zenuke zer den komiki bat?

Komiki batek errealitatearekin eta fantasiarekin du lotura. Errealitateari lotua dago baina fantasiakoa da. Errealitatea modu kritikoa batean kontatzeke aukera ematen du. Exajeratu, transformatu,... egin daiteke.

Zein da euskarazko komikigintzaren egoera?

Euskarazko komikigintzarako ez dira garai onak. Txikiak ginenean komikiak irakurtzen genituen. Komikiak oso entretengarriak ziren guretzako. Gaur egungo gazteek, ordea, ordenagailua, *Play Station*-ona,... eta halakoak erabiltzen dituzte entretenimendurako. Badira ordea, komikigintzarako kultura hedatua dute lekuak. Japonian, esaterako,

oso sustraitua dago komikigintza. Jende heldu asko ikusten da komikiak irakurtzen metroan. Frantzia ere jende heldu asko ikusten da komiki dendetan. Euskal Herriari dagokionean, zerbait orri egitean izaten da arrakasta. Xabinatorrek, esaterako, izan du. Hala, oso gehiago landuko bagenitu, zaletasuna hedatzea eta argitaletxeetako ateak zabaltzea lortuko genuke, agian. Izan ere, komikiak saltzea zaila izanik, zaila da argitaletxeek komikiak publikatzea eta, lehenengo aukera ere ez badugu,... Agian, argitaletxe batzuk, kultura saila,... komikigintza bultzatzen saiatuko balira, komikigintzaren egoera beste bat izango zen. Ildo horretan, Xabiari aldizkaria egiten ari den lana txalotu behar da. Ikastetelan banatzen da eta komikiekiko zaletasuna bultzatzen du. Gakoa hor dago, zaletasuna bultzatzean.

Eta, Galtzakomik moduko komiki lehiaketek laguntzen al dute horretan?

Komiki lehiaketek horretarako ere balio dute. Ni, esaterako, lehiaketei esker naiz komikilaria. Argitaletxeek,... ez dituztenez gure lanak argitaratzen, lehiaketak dira gure salbamendu, komikiak kaleratzeko bidea direlako. Izan ere, komunikatzeko helburuarekin egiten ditugu komikiak eta ez karpeta batean gordeta izateko.

ALDATZ Kristaldegia
Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiak
Beirate artistikoak
Dubxa-itxurak
Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informakika Zerbitzuak
Ondaragailuak eta konputerrak
Enpresa eta partikularientzako
Mantentzeak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es



Patxi Caminos

“Burua bere tokian izatea oso inportantea da”

Naiara Roldán de Aránguiz



24 ordutan Txindoki mendia 12 aldiz igo eta jaistea lortu du

Hirugarrengoan erronka lortuta. Zorionak!

Sentsazio onak izan nituen. Aurrekoetan ez nuen suerte handirik izan, erori eta utzi egin behar izan nuen, oraingoan egia esan oso gustura ibili nintzen. Momentu txar bat edo beste pasa nuen baina errez gailendu nuen.

24 ordutan, Txindoki Mendia (1.346 m.), 12 aldiz igo eta jaistea ez da marka samurra. Hori lortzeko zer nolako entrenamenduak burutu behar izan dituzu?

Horrelako proba bat prestatzeko, aurretik lan gogorra egin beharra dago. Prestatzen hasi nintzenez, asteburuetan goizean etxetik atera eta iluntze arte ibiltzea izaten zen, korrika eta oinez. Asteazkenean, lanetik seietan atera eta gimnasioan pesa batzuk egin edo Uzturre aldera joaten nintzen korrika egitera. Denbora arrimatu heinean gogortzen joan nintzen. Martxoan aldean,

berriz, prestatzaile batekin batzuk eta esfortzu proba bat egin nituen eta horren arabera entrenamenduak astez korrika lasaia edo gimnasioa eta asteburuetan erabat mendira joatea izaten ziren. Asteburuko entrenamenduak 15-16 ordukoak izanda.

Hori arlo fisikoari dagokionez, baina psikologikoa ere prestatu beharko da horrelako erronka bati aurre egiteko, ezta?

Hori da. Psikologo batekin ibili naiz prestatzeko hau burutzen. Momentuzailak etortzen zirenean horri buelta nola eman lantzen genuen, baikor pentsatzea. Buruak agintzen ez badizu hankak ez dira abiatuko. Burua bere tokian izatea oso inportantea da.

Zein izan da erronka honen unerik gogorrena eta goxoena?

Egun berarena zazpigarren buelta izan zen. Ez dakit zer

gertatu zitzaidan, banekien entrenamenduetan 6. edo 7. bueltan beherakada bat izaten nuela baina iturria pasata erabat hoztuta geratu nintzen, blokeatuta. Azkenean, nolabait gora joatea lortu nuen. Han zerbait jan eta errez gailendu nuen. Entrenamenduetan egun gogor asko izan ditut; egia esan, asko sufritu dut. Entrenamendu oso gogorak jartzen zizkidaten, fisiko hau lortzeko asko sufritu behar izan dut.

Goxoena... eguna bera izan zen... Larunbata hasteko gogoekin nengo eta nik uste benetan polita bukaera izan zela.

13.ena egiten saiatzeko tentatziarik izan al zenuen?

23 ordu eskasetan burutu nuen. Egia esan nire asmoa 13.a egitea zen, entrenamenduetan horrela erakutsi zuten baina 7. buelta horretan denbora asko galdu nuen. 10. bueltan Larraitzera jaitsi nintzenez jakin beharra zegoen zer egin nahi genuen, 12 edo 13 buelta. 6 ordu nituen eta gorputza nekatzen hasita zegoela ikusi nuen, 13 egitea joatea gehiegi arriskatzea zen. 6 ordu horiek aprobetxatu nituen 12 lortzeko, baina hasieratik nire asmoa 13 egitea zen.

Erronka lortu ahal izateko ezinbestekoa da antolakuntza aldetik jendearen partaidetza. Zenbat pertsonen lan egin dute?

Ekipo teknikoaren aldetik izan ditudan prestatzaileak, medikua, psikologoa eta dietista izan dira. Ibiltzeko jende asko izan dut, emaztearen aitak eta Larraitzeko beste lagun batek ere asko lagundu didate. Entrenamenduetan ibili naizenez Txindoki puntan gaua pasa behar bazen jendea izan dut, alderdi horretatik oso harro nago. Jende asko inplikatu da eta eskerrak ematen dizkiet, hori behar-beharrezkoa izan da.

Dietista ere aipatu duzu, dieta makrobiotikoarekin hasi zinen katarro kontuak zirela eta ezagun batek gomendatuta. Dieta horrekin jarraitzen al duzu?

Bai, bai. Nire oinarria oraingoan ere erabat makrobiotikoa izan da baina gero oilasko haragi eta arrai pixka bat jaten nuen, astean bitan, baina baxea behintzat makrobiotikoa da.

Apustuko egunean zer behar izaten du gorputzak, zer jaki hartu zenituen?

Bezperako egunetan pasta integral asko jaten nuen. Egunean bertan gehien bat fruta -laranja, melokotoia, brinoia,- eta jogurtak zerealekin; dietistak egindako arroz krocketak -egia esan ez dakit barruan zer zeukan- ere jaten nituen.

Etxekoek nola bizi izan dute prestatzeko garaia, 24 ordu horiek eta baita emaitza bera ere?

Ama gehien sufritu duena izan da. Nire ama beti horrekin buruan egon da, bazekien hortik nobilela, gora eta behera mendian; badakigu ama guztiak nolakoak diren... Noski, ama bakarrik ez, emaztea ere bai, azken batean, gehiago edo gutxiago, denek sufritzen dute. Etxetik kanpo ordu pila pasa izan ditut, 2 ume ditut eta berari tokatu zaio. Gero emaitzekin gustura egon dira baina aurretik asko sufrituta.

Eguna aukeratu ahal izateko zer nolako faktoreak hartu ziren kontutan (ilargia, eguraldia, entrenamenduak...)

Uztailaren 17ko eguna, erorketaren eguna, nire formaren arabera aukeratu zen; 15 egun lehenago 9 buelta egin nituen eta orduan ikusi genuen bi aste barru hor nengoela pronto, ez genuen ez ilargirik ez ezer begiratu. Azkenengoan ere berdina egin genuen. **Gorputzak zer erantzun ematen du honelako esfortzu baten ostean?**

Nahiko errez erreperatu naiz, egia esan aurretik lan asko eginda nengoan. Astelehena oso gogorra izan zen, igande gauean kalanbre batzuekin ibili nintzen eta astelehenean besoak minduta nituen hainbeste ordutan makilekin ibiltzeaz. Asteartean hobeto nengoan eta asteazkenean berriz berria bezala.

Zurea apustua den aldetik eta herrialde apustuzale batean bizi garela kontutan hartuta, jakin al duzu diru-apusturik tartean egon ote den?

Jendeak egin ditu hor apustu batzuk, gauza askorik ez zen jokatu baina zerbait bai behintzat. Lehengo urtean baino baiezko gehiago zegoela badakit eta ezekoa ere bai noski, apustu bat egiteko alderdi biak egon behar dute!

Igo al duzu Txindoki berriz ere?

Bihar noa. Egia esan gogoan daukat berriz ere joateko, aurren 180 bat aldiz igoko nintzen baina berriz ere gogoan daukat igotzeko. Bihar entrenamendu bizia egingo dut, karrera egunean joan nintzen erritmo berdintsuan joango naiz baina beste lasaitasun batekin.

Beldurrik Iker Karrerak marka berdindu edo gailentzeko?

Beldurrik? Beldurrik, bat ez! Egin nahi baldin badu hor dauka bai Karrerak eta baita beste edonork, nik baino gehiago egitea lortzen baldin badu nik zorionduko dut, ez dago hor inongo pikerik.

Eta orain zer? Tankerako erronkarik buruan?

Orain momentuan behintzat deskantsatzea dagokit, gero badaukat gogoan zerbaitetan jarraitzeko, horrelako forma fisikoa lortu eta galtzea pena bat da. Aizkorri eta Ehunmilak hor daude. Ikusiko dugu, denbora badago eta.



Juan Larrazpu
eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko esturturetan adituak.

• Etxeen berrikuntzak: Fatxadak - Teilatutak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)



Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.


Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti
kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

irakurri
entzun
Ikusi

Reckless. Harrizko haragia
Cornelia Funke
Itzultzailea: Aiora Jaka




Jatorrizkoa eta itzulpena egun berean salgai jarri berri dira. Haur eta gazte literaturan ibilbide oparoa izandako alemaniarraren lan honek Reckless anaien abenturak kontatzen ditu. Aitaren bila dabilzala, aitaren gelako ispilua beste mundu baterako sarbidea dela deskubrituko dute eta bi munduen artean ibiliko da atzera-aurrera. Fantasiako mundu batera eramango zaitu liburu honek.

Don Inorrez
Bide Ertzean
Bide Ertzean boskote tolosarrak Don Inorrez disko berria aurkeztu berri du. 13 kantez osatutako lana, *Zurekin dantzatu nahi nuke* singlearekin ezagutzera eman nahi izan dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak plazaratutakoa.



Todo lo que tú quieras
Acheru Mañas

Acheru Mañasen itzulera, *El Bola* eta *Noviembre* filma arrakastatsuen ostean, 8 urte igaro eta gero, zuzendari madrildarrak aitatasun gai garrantzitsua jorratzen du oraingoan. Familia bateko ama, Alicia, alabaz arduratzen dena da baina Gabonetako oporraldian epilepsia-krisaldi bat dela medio hil egin eta alabaren ardura aitak hartu beharko du. Leok bere aurreiritziak alde batera utzi eta alabaren zorientasunaren bila hasiko da, bere nortasuna galtzeraino.



hitzorduetak

Urriaren 1etik 15era arteko

Ikastaroak Euskal Jaia

Erretzeari uzteko taldea
Utzi erretzeari eta hobeto bizi!
Urtiaren 10ean. Eskualdeko baserritar eta artisauen azoka plazan, Dultzaineroek alaiturik, euria eginez gero frontoian egingo litzateke. Gaztaren prozesua, ardiei ilea moztu eta artilea nola lantzen den erakustaldia. Loatzako Txarangaren Kalejira. Herri bazkaria (mondejua eta bildotsa). Artzain txakurren erakustaldia eta talogileak eta dantzadi erromeria taldea.

Esperientzia eskola tolosaldean 50 urtetik gorakoentzat
Mugabe Elkarrekin Esperientzia Eskolen matrikula zabalik du. Esperientzia Eskola 50 urtetik gorako pertsonen zuzendua dagoen formazioko eta gizarte parte hartzeko proiektua da.

Matrikula zabalik dago urriaren 15era bitartean. Ikastaro formatzaile honetan jorratu dituzten gaiak osasunaren mantentze eta hobetzea, gizarte harremanak eta komunikazio gaitasunak, filosofia, psikologia, etab. Kursoaren iraupena urriaren hasi eta ekain bitartekoa da, astean hiru egunetan. Informazio gehiago 943 22 41 46 telefono zenbakian.

Azokak

Abere azoka
Urriaren 2an, Tolosan. XLI. Behi-Lehiaketa. Behi arraza ezberdinen erakusketa eta enkantea.



Ikuskizunak

Leidor
Doltza: Dultzinea Kixote Vs. Teresa Panza. Agerre Teatroa. Urriaren 1ean Tolosako Leidorren. Antzezle eta musikari ero samarrek 'Kixote' obra antzezteko asmoarekin antzokira heldu eta bertako teknikarien zein ikusle goaren laguntza eskatuko dute.

Txirri, Mirri eta Txiribiton: Katxurri Miliputxi. Urriaren 2an Tolosako Leidorren. Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorren azken ikuskizuna. 9 esketx-jolas dibertigarri parte-hartzaileak abestiez tartekatua.



Golden Apple Quartet: Los Golden en blanco y negro. Urriaren 9an Tolosako Leidorren. Ordu t'erdiko emanaldi honetan Goldenek ustekabea izango dute, euren birraitonek Gerra Zibila eta gero AEBetara joateko erabakia hartu eta han burututako ikuskizunen berri jasotzen dituzten eskutitz, egutegi, prentsa albiste eta jantziak bezalakoak dituen kultura aurkituko dute.

Jaiak

Ugarte Auzoa (Amezket). Errosarioren Amaren omenezko jaiak. Urriak 1-3. Ostirala, urriak 1. Herri afaria, trikitia Ostolaza eta Andonegi-ekin, toka lehiaketa. Larunbata, urriak 2. Gazteen

pilota partiduak, puzgarri eta ohe elastikoak, zaldi ibilaldiak, txokolatea, bertso poteoa Julio Soto eta Bixente Gorostidirekin, zahagi ardoa eta Ansozregi eta Larrañagarekin trikitia. Igandea, urriak 3. Meza nagusia, txakolin dastaketa, herri kirolak, ingurutxo eta sagardo dastaketa.

Irura. San Migel Jaiak
Ostirala, urriak 1. Kalejira buruhandi eta erraldoiekin, txistor jatea, play back jaialdia eta dantzaldia Gabezin taldearekin. Larunbata, urriak 2. (Bikoteen eguna). Haur parkea, bikoteen dantza-soka, bikoteen bazkaria, haurrentzako dantzaldia, kale antzerkia, Lain taldearen kontzertua. Igandea, urriak 10. (Jubilatu eta pentsiodunen eguna). Meza nagusi abestia eta jubilatuta eta pentsiodunen bazkaria.

Bonberenea

2 larunbata. Vendetta eta Di-saster Krew. 22.30
8 ostirala. Natural Proiect eta Lauroba. 22.30
9 larunbata. Kerobia. 22.30h
15 ostirala. Seiren eta Petti. 22.30



Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Udazkeneko oinarriko erlezaintza	2010/10/01	30
e-administrazioa	2010/10/04	20
Zuhaiztiak begiez ebaluatzea, udazkeneko koloreen arabera	2010/10/04	8
Internet + e-administrazioa	2010/10/18	20
Nola zaindu lorategia	2010/10/18	20
Haur eta gazteen astialdiko begirale ikastaroa	2010/10/09	320
Kontserbak: ontziratzea eta izoztea	2010/11/02	10

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 1 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteazkena, 6 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Astelehena, 11 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
Larunbata, 2 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 7 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Astearte, 12 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
Igandea, 3 Ugarte M ^a T. (Euskal Herria, 46) Ibarra	Ostirala, 8 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteazkena, 13 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Astelehena, 4 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Larunbata, 9 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Osteguna, 14 Ugarte, M ^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
Astearte, 5 Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	Igandea, 10 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Ostirala, 15 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

Telefono interesgariak

Alegia-Amezket-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian geriatrikoa	943 672 932
Medikua	Udalzaingoa	943 675 858
Baliarrain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

NISSAN

SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & irudia

Vicente

www.rotulosvicente.com

943 69 02 94

taller@rotulosvicente.com
Laskar balara 25, 1-04 atea
20271 Irua (Gipuzkoa)

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Pisu edo apartamentu baten bila nabil alokairuan hartzeko. Tolosan edo inguruan. 656.744.115

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoak opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Sentikortasun eta tristura garaia, maitasunean sufrimendu aldia. Ikasketa eta lanean buru belarri sartuko zara harreman publikoak alde batera utzita.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Egun hauetan autokontrolak berebiziko garrantzia izango du. Jeloskortasuna alde batera utzi eta zure bikotearengan fidantza izan. Lan arrakastak berehala antzemango dira.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Bikotekidearekin hobekuntza nabaritu duzu komunikazio mailan. Emozio zein sentimenduek arrazoiak baino indar gehiago izango dute. Ikasleek urduritasun garaia jasango dute, ezin kontzentratuz.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Lan-harreman egokiak. Bestela urduritasun eta estres egoerak arazo psikosomatikoak sortu ditzake. Adimena ireki eta baikorki pentsa ezazu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Distira berezia izango duzu egun hauetan baina ez zaitez harroputza izan. Bihotzeko gaitzak pairatzeko arriskua. Erretzailea bazara, uzteko memento aproposa da; bakarrik lortzeko gai ez bazara, laguntza eska ezazu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Asmo handiko zure proiektu horrekin jarraitzeko aukera izango duzu. Ez utzi ohikeriari zure bizitzan sartzerik. Maitasunari dagokionean zure sentimenduak azaltzeko unea heldu da.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Bi aste hauetan zehar ilargiak maitasun kontuetan eragina izango du, ezkontza hitza behin baino gehiagotan entzungo duzu zure inguruan. Onena gaizki-ulertuak ekiditea izango da. Kirol jarduerarako elikadura osasungarria ezinbesteko osagarria da.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Harroa bazara ere oraingoan bake-rako kemenez zabilta. Bakartasuna alde batera utzi eta bikote bizitza probatzeko desiratzen zaude. Egun aproposak ekimen berriak martxan jartzeko.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21
Desoreka ekonomikoa dela medio bikote eztabaidaren bat egongo da, familiarengan eragina izanik. Erlazioa hoztu baina berehala egoerari buelta emango diozue.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Bikote gaiek bigarren mailako garrantzia hartuko dute, familia kontuetan erabat murgilduta egongo zara. Lana eta adiskidetasuna bateraezinak direla jabetu eta zure jarrera gogortuko duzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Bikoteetan oso komunikazio ona egongo da egun hauetan, edozertarako prest egongo zarete. Pentsatuta zenuena egin ezazu, soldata igoera hori merezi duzu, lan itzela egin duzu azken aldiak.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Adiskide berriak egiteko unea aproposa; maitasun-harreman bati ere ekiteko aukera, inoiz pentsatuko ez zenuen pertsonarekin gainera. Ekonomia arazoek loa kenduko dizute. Negozio bat martxan jartzekotan bazabilta aholkuak ezinbestekoak izango dira.

Horoskopoa

Urriaren 1etik 15era arteko aurreikuspena

NAGUSIETAN
NAGUSIENA BILATZEN
ARI GARA

ORDAIN-SARIA:

<p>STIVAREN BERLINGO HDI 9.900€ *TIK+BEZ + PLAN 2000 CITROËNEN ANOKETATU/MOHEZUA</p>	<p>CITROËN SPACE HDI 14.700€ *TIK+BEZ</p>	<p>CITROËN SUPER HDI 15.500€ *TIK+BEZ</p>
---	--	--

**BENETAKO NAGUSIENTZAT BAKARRIK:
ICO FINANTZIAZIO LINEAK AUTONOMO ETA ENPRESENTZAKO.**

CITROËN
CREATIVE TECHNOLOGIES

IROVI, S. A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G. TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA

harria gresak


25 urte zure bainugela janzten
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - belo@harriagresak.com

aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



Komikia: Joseba Antxustegiartarte

Konpartitu itzazu nahi baduzu...

2 betaurreko kristalekin
Graduazio berdinarekin edo desberdinarekin

97€

2 konbinatu mó

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan


HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 ^{EGUN} behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 urte
TOLOSAN

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

